



GABONAK  
2019

*gehigarrri berezia*






# Peregrinus Sagardotegia

·Plater konbinatuak ·Sandwichak ·Hamburgesak ·Pintxoak

- Kafeak eta opilak
- Eguneko menuak



# CAFE BOULEVARD JATETXEA



# txinparta

SAGARDOTEGIA  
JATETXEA

Razioak, pintxoak, bokatak  
eta eguneroko menua.

Urbil merkataritza gunea

## OLENTZERO, “HURBILAGO HERRIALDERA”

Zenbat sorpresa eta opari utziko dizkigun laster jakingo dugu. Etxez etxe ibiliko da Olentzero abenduaren 24ko gauean. Baina adi, bere opariak jaso aurretik, lehenago ikusiko dugu gure artean. Lanez jositako egunari ekin aurretik, “Hurbilago herrialdean” barneratuko da bezperan, hilaren 23an.

Hurbilago aipatuta, herriko ostalari eta merkatarien elkarteak badatorkigu, ez gabiltza oker. Aipatu elkarteak “Hurbilagoren herrialdea” eraikiko du eguberriotan; elkartearentzako esanguratsua den kokagunean. Herri merkataritza eta ostalaritza eremu nagusirako sarbide den babarrun formako Eroskiren saltoki ondoko biribilgunean. Bai, Errekatxiki, Zubiaurrena eta Belmonte kaleek bat egiten duten eremua, “Hurbilagoren herrialdea” izango dugu eguberriotan. Euskal Herriko ikazkin ezagunena bertara helduko da hilaren 23an iluntzeko 19:30etan.

Haur, gazte zein helduok; prestatu Olentzerorentzako zuen eskariak idatziz. Gerturatu aipatu egun, ordu eta lekura, Aliprox ondoko errotondara. Berari harrera egin eta zuen gurariak jasotzeko prest izango da Olentzero.



Lanez jositako egunari ekin aurretik, Olentzero “Hurbilago herrialdean” barneratuko da hilaren 23an.

## HERRI GIROA PIZTEA DENON ESKU DAGO

“Hurbilago herrialdea” inguratzen duten argindar posteen gailkaldeei begiratu egunotan. Honez gero, urte garai honetarako egurrezko etxolekin apainduak aurkituko dituzue. Eta egurrezko etxolei so egin ostean, hurbildu Hurbi-

lago Elkarteko kide diren saltokien erakusleihoetara. Etxolok izango dituzten argi lanparatxoekin apainduko dituzte.

### Usurbilen erosteak abantailak dakartza

Gogoan izan, pizgarri ugari aurkituko

dituzue herriko saltokietan. Kontsumoa igotzen den urte garai honetan ere Usurbilen erosteak abantaila bat baino gehiago dakartza. Herri merkataritza eta ostalaritza, herri giroa pizturik eustea herritarren esku dago, argi denez.

# UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEEK KANTARI HASIKO DITUZTE EGUBERRIETAKO OPORRAK

## Abenduak 20 ostirala

### Udarregi Ikastola

■ 09:30-10:45 LH-DBH-ko ikasleen kantu-jira:

-LH-koek Kalezarko itzulia egingo dute.

-DBH-koak Kaxkoan barrena ibiliko dira.

■ 12:10 HH-koen kantu saioa ikastola atarian.

■ 16:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Haur Eskolan.

■ 17:00ak aldera, Haur Eskolatik Kalezarreko plazara abiatuko dira kantuan Haur Eskolako eta HHko ikasle, guraso eta irakasleak. Eta handik Mikel Laboa plazara.

Antolatzailea: Udarregi Ikastola.



Mailaren arabera, ibilbide ezberdinak osatuko dituzte abenduaren 20ean.

ZORIONAK **Cambridgeko** azterketak  
gainditu dituzuten guztioi !

  
**tobyngana**  
english SCHOOL

### First Certificate FCE

Aimar de Moura

Amaia Labaien

Amaïur Caballero

Eneko de Diego

Eneko Lopez

Jon Uli

Julen Borreguero

Lorena Martinez

Maddi Labaka

Maialen Echeverria

Maria Martinez

Mario Rodriguez

Mikel Orbañanos

Natalia Guerra

Nerea Telleria

Unax Labaka

### Advanced CAE

Joseba Zumeta



**Cambridge ESOL**  
Exam Preparation Centre

Merry Christmas  
and Happy New Year!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

# AGINAGA ETA ZUBIETAKO IKASLEAK ERE, KALEJIRAN IBILIKO DIRA OSTIRAL HONETAN

## Abenduak 20 ostirala

### Aginagako eskola:

■ 10:00ak aldera Aginagako Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen kantu-jira Aginagan barrena. Ondoren, guraso taldeak prestatutako hamaiketako dastatzea. Antolatzailea: Aginagako Eskola.

### Zubietako eskola:

■ 12:00ak aldera, gabon kanta senideekin Errebote plazan. Ondoren, Guraso Elkar-teak hamaiketako eskainiko du Zubietako plazan. Txistorra, edaria, musikaz lagunduta.



Aginagan 10:00ak aldera abiatuko dira.



Zubietan aldiz, 12:00ak aldera.



Urtarrilaren 11an  
irekiko dugu

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**

**AIZPURUA**  
**OKINDEGIA**

**OGIAK**  
**GOZOGINTZA**  
**TARTAK**  
**ARDOAK**



*Festetan zure mahaia ondo hornitu  
nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

**KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20**

# HURBILAGOKO SALTOKIETAN EROSTEAK SARIA DAKAR

**E**gunotan Hurbilago Elkarteko saltokietara gerturatuta sariak irabazi edota aipatu bilguneak antolatuturiko ekimenetan izen emateko aukera izango duzue.

Egiten duzuen erosketa bakoitzeko, abenduaren 31ko 10. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa ostein egingo den Gabonetako Zozketarako txartela eskuratuko duzue; bi lagunentzako 12 otordu zozketatuko dira. Aipatu lasterketarako ere izena eman ahalko duzue Hurbilagoren saltoki jakinetan; izena ematen duten lehen 100 lagunei kamiseta oparituko zaie. Eta Hurbilagoren dendetan egiten duzuen 20 euroko erosketa bakoitzeko, abenduaren 27 eta 28rako antolatu duten Gabonetako Parke Erraldoirako puntu bat jasoko duzue. 10 puntu bilduta, parke-rako sarrera doan!



Hurbilagoren dendetan egiten duzuen 20 euroko erosketa bakoitzeko, abenduaren 27 eta 28rako antolatu duten Gabonetako Parke Erraldoirako puntu bat jasoko duzue.

## HURBILAGOREN GABONETAKO PARKE ERRALDOIA, ABENDUAREN 27AN ETA 28AN

**H**erri merkataritza eta ostalaritza eremua jolasparke erraldoian bilakatuko du Hurbilagok aurten gabonetan ere. Abenduaren 27an eta 28an Usurbilgo kaleetan hainbat atrakziotan ibiltzeko aukera izango dute haur eta gazteek. Aukera zabala izango da, askotariko jolasak gustoko dituztenentzat: puntuazio porteria, giza futbolina, Kubic rokodromoa, *lan-zadera*, Jumping erraldoia, haurren-

tzako saltogune elastikoa, bideo jolasak, lau gurpileko motorrak eta paintballa.

### Puntu bidezko sistema

Sarrerak doan eskuratzeko aukera eskaini du Hurbilagok. Abenduaren 26ra arte egindako erosketen trukean puntuak emango dizkiete bezeroei jolasparkeaz goza dezaten. 20 euroko erosketa bakoitzeko puntu bat eskuratuko dute bezeroek, eta 10 punturekin, egun osorako

sarrera eskuratuko dute doan.

Abenduko azken ostiral eta larunbatean Mikel Laboa plazan, Dema plazan, Askatasuna plazan eta frontoian egongo da kokatuta jolasparkea, goiz eta arratsalde. Bi egunetan, ordutegia berbera izango da. Goizetan, 11:30etik 14:00ak arteko tartean irekita egongo da parkea, eta bertan izango dira begiraleak ere. Arratsaldez, berriz, 16:30etik 21:00ak bitarte.

# ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

Zorionak eta  
urte berri on!

Tel.: 943 376 415

Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3.

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA

Ondo pasa  
Gabonetan!



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

## SALEROSKETA & ALOKAIUA

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.com  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

 **Inaki  
Iturgintza**

Ondo pasa  
gabonetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**600 024 825**

info@inakiliturgintza.com - www.inakiliturgintza.com

**mur**  
errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak  
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

## **SAN SILBESTRERAKO IZEN EMATEA ZABALIK**

**H**urbilagok herri merkataritza eta ostalaritzaren alde abenduaren 31rako antolatutako 10. San Silbestre Herri Lasterketarako izen ematea zabalik da.

### **Saltoki hauetan**

Parte hartu nahi dutenek, honako saltoki hauetan eman dezakete izena doan: Aizpurua Okindegia, Alkartasuna kooperatiba, Arruti Harategia, Bordatxo, Esnaola Lurrindegia, NI ile-apaindegia, Intza ile-apaindegia, Itzira, Laurok, Lizardi, Juantxo Burdindegia, Otar Goxo eta Usurbil Optika. Abenduaren 31n bertan ere, frontoian zuzenean aukera izango da

izena emateko. Behin izen ematea egin da, kamixeta bana oparituko diete parte hartzaileei, agortu arte.

### **Lau kilometroko lasterketa**

Urteko azken egunean urtero egiten den lasterketa frontoitik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan. Guztira lau kilometro inguruko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek, herri merkataritza eta ostalaritza eremuari bi itzuli emanda. Lasterketa amaitzean, opari banaketa egingo dute parte hartzaileen artean, bai eta Usurbilgo denden Gabonetako Zozketa ere. Sari berezia ere izango du mozo-rrorik onena soinean daramanak.



Abenduaren 31n, Usurbilgo frontoitik abiatuko da lasterketa, arratsaldeko 17:00etan.

## **OLARRONDOko BAZKARIAK GABONETAN:**

**ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EGINDA OSPATU GURE JATETXEAN:**

**Abenduaren 25ean: Gabon-bazkaria**  
**Urtarrilaren 1ean: Urte-berri-bazkaria**

**Zorionak eta urte berri on!**



**Olarrondo Jatetxea**  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: **626 686 036**  
[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)



edaritegia

**BORDATXO** edaritegia

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

*Zorionak eta urte berri on !!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

**Bixen**  
ileapaindegia

Solariuma  
Depilazioa  
Ilearen erorketaren aurkako tratamendua

*Zorionak eta Urte Berri On!*

Nagusia 10, Usurbil - 943 37 28 44



ARRANDEGIA  
**PELLO**



EGIN ZURE ESKAERAK  
WHATSAPP-ETIKI!

ONDO PASA  
GABONETAN!

ORDUTEGI ETA  
TELEFONO BERRIA

ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

**Oinutsik**  
PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!  
*Sustraitu osasuna oinetatik*



Oinutsik  
☎ 943 11 09 54  
*Ondo pasa Gabonetan!*

# SANTUENEA ELKARTEAREN DEIALDIAK

Santuenea Elkartek hainbat ekimen iragarri ditu urte amaiera honetarako. Aurreko igandean, gabonetako tailer artistikoa iragarria zegoen. Hauek dira datozen egunetarako prestatu dituzten ekitaldiak:

## Abenduak 20, ostirala

■ 19:00 Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoaren hitzaldia Santuenea Auzo Elkartean: "Berdintasuna eta generoa".

■ Ondoren, San Tomaseko txistor jana. Antolatzailea: Santuenea Elkartea.

## Abenduak 24, asteartea

■ 18:00 Olentzero kalejiran plaza ondoko lokaletik.



Abenduaren 24an, Olentzero kalejiran ibiliko da Santuenean. Plaza ondoko lokaletik abiatuko da, arratsaldeko 18:00etan.

**Gabonetan Eramateko Eskaintza Berezia**

TXANGURROZ BETERIKO PIPERRAK	6.00 € (3 UNIT.)
URDAIAZPIKO EDO TXIPIROI KROKETAK	5.00 € (8 UNIT.)
ARRAI ZOPA	5.00 € PERTSONAKO
BAKAILADA SALTSA BERDEAN	7.00 € PERTSONAKO
TXEKOR MASAILAK	8.00 € PERTSONAKO

**ARTZABAL**  
BASERRIA - JATETXEA  
PUNTAPAX 8 - 943 36 91 39



**Xabier Larrarte Ezeiza**  
Enpresaritzan Lizentziatua

Zubiaurrenea, 10 Behea  
20170 USURBIL

943 371 807  
larrarte@grupolarrarte.com



**LARRARTE**  
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.

*Patxi*  
Patri<sup>enea</sup>  
Iatetxea

**ABENDUAREN 23tik**  
**URTARRILAREN 2ra ITXITA**

- bazkariak EGUNERO
- afariak. ostegunetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

kale nagusia 14. 20170 Usurbil



**EROSKI**  
city

*Eguberri zoriontsuak opa  
dizkizuegu!*



Kale Nagusia 10, USURBIL  
Tel. 943 36 11 82

**Auto Guria s.l**



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

☎ **943 363 298**

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

# MILESKER NOAUA! KIDE IZATEAGATIK

**Z**uen urteroko kuota fin asko ordaindu eta proiektu honen bizirau-pena bermatzen laguntzen duzuen bazkideak ditu NOAUA! K.E.-k. Eta bes-tetik, lantegi, proiektu edota zerbitzu ezberdinak iragartzeko tokiko hedabide hau hautatzen duten hainbat babesle edo laguntzaile. Guztiok zarete NOAUA! kideak eta urtero moduan, eskerrak eman nahi dizkizuegu kultur elkarte hau sostengatzeagatik. Herriko nahiz gertuan ekointzitateko produktuez hornitutako ondoko irudietako saski ederrokin oparitu nahi dizuegu gure eskertza. NOAUA! K.E.-ko bazkideen eta publizitatea kontratatzen dutenen artean bina otar zozketatu ditugu egunotan. Hemen dituzue sarituak. Zorionak eta milesker guztioi!

#### **Publizitatea jarri dutenak:**

- Pikabea aseguru artekaritza.
- Argilan etxetresnak.

#### **Bazkideak:**

- Jose Mari Zabalza Altamira.
- Iker Mujika Muguerza.



Aldizkaria eta web orria plazaratzeaz gain, kultur jarduera ugari antolatzen ditu NOAUA!k.

## Bazkideen arteko zozketan



Bazkideen arteko zozketan:  
Iker Mujika Muguerza.



Bazkideen arteko zozketan:  
Jose Mari Zabalza Altamira.

## Publizitatea jarri dutenen artean



Publizitatea jarri dutenen artean:  
Argilan etxetresnak.



Publizitatea jarri dutenen artean:  
Pikabea aseguru artekaritza.

Zorionak eta Urte Berri on!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua    Dermofarmazia  
Produktu homeopaticoak    Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

[www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)

Zorionak eta urte berri on!

INTZA

ILEA PA INDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

- PRESOTERIA
- TINTE+BETILE PERMANENTEA
- BETILEEN LIFTING-A+ TINTEA
- MANIKURA+PEDIKURA
- AURPEGIKO GARBIKETA+HIDRATAZIOA
- HIDRATAZIO OSOA
- GORPUTZEKO MASAJE LASAIGARRIA
- ILERAKO TRATAMENDU BEREZIAK
- LASER
- MIKROPIGMENTAZIOA
- TATUAJEAK

Aukera itzazu  
gabonetako opariak:  
Estetikan bonoak eta Pak-ak

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

INFORMA-ZAITEZ!

## “PIZZA TAILERRA KLASIKO BAT DA GAZTELEKUAN”

**NOAUA!** Aurten ere Gabonetarako ekintzak antolatu dituzue Gaztelekuan. Tabakalerara joango zarete DBH2 eta DBH3ko ikasleekin. Zer egingo duzue bertan?

**Saioa Aginako, Gaztelekua:** Azaroan programatzen dugu Tabakalerara joateko ekintza, baina hilabete beranduago egiten ditugu ekintzak. Denbora asko dago tartean, eta konpromiso bat lortzea adin horretako jendearekin zaila da. Agendan zerbait jarri behar dugu, eta orduan orokorrean gustukoa den zerbait jartzen saiatzen gara, baina aldaketak egon daitezke. Konpromisoak bilatzen ditugu gazteekin bere gogo eta nahien arabera, eta datak hurbildu ahala lasaia egoten dira. Behin azterketak amaituta, burua beste leku batzuetan dute eta zer egin nahi duten errazago erabakitzen dute. Guk arbelean jarrita uzten ditugu ideiak, baina adostu gabe. Orain ari gara gehiago zehazten, eta ikusiko dugu. DBH3koekin elurretara joatea adosten ari gara. Ez dakigu elurrik egongo den, baina txango bat egin eta trineoekin aritzea ideia ona izan daiteke. Oraindik zehazteko daukagu, baina txangoren bat izango da. DBH2koekin ere, agian Tabakalerara joango gara, baina adosteke daukagu. Lekua ezagutu, ping pong-ean aritu eta bideojokoekin aritu izan dira beste urte batzuetan, musika tresnak jo, ginkana txiki bat egin... zintzilik daukagu oraindik.

**Pizza tailerra eta Got Talent ere egingo dituzue DBH1 eta DBH4ko ikasleekin. Horiek Gaztelekuan bertan izango dira?**

Got Talent Sutegin egingo dugu eta pentsatuta daukagu bakoitzak bere gaitasunak besteen aurrean erakusteko. Deialdi itxia da, guretzat bakarrik. Bakoitzak zerbait antolatzen du. Denetik egin izan dute, trentzak, dantzak... bakoitzak bururatzen zaiona egin dezake, erabat librea da. Txuri Urdinera ere joango gara beraiekin, urteroko klasikoetako bat da.



“Got Talent Sutegin egingo dugu, bakoitzak bere gaitasunak besteen aurrean erakusteko”.  
Abenduaren 21ean egingo dute.

Asko gustatzen zaien ekintza izaten da, eta urte sasoi honetarako aproposa da. Urtero egiten dugu, eta urtero oso erantzun ona jasotzen dugu.

DBH4koen kasuan, pizza tailerra ere klasiko bat da. Gaztelekuan bertan egiten dugu, sukalde txiki bat daukagu bi surekin eta bonbona batekin, eta labe

txiki bat ere badaukagu. Horrekin moldatzen gara. Kuadrilaka pizzak egiten dituzte gazteek. Helburua ez da jatea bakarrik, bestelakoak ere lantzen ditugu: antolakuntza, elkarlana, ardurak hartzea... Elkarrekin hitz egiteko ere aukera ona izaten da, gai ezberdinak lantzeko.

## GAZTELEKUA, EGUBERRIETAKO DEIALDIK

Gazteen aisialdiak oporraldirik ez du izango asteotan. Horren lekuko, zabalik izango duten Gaztelekua. Ekintzok antolatu dituzte DBH-koentzat. Gogoan izan antolakuntzaren oharra. Txangoetarako guraso baimenak aurrez jaso behar dira Gaztelekuan bertan:

### Abenduak 21, larunbata

■ Got Talent DBH1ekoentzat.

### Abenduak 26, osteguna

■ Elurretara DBH3koekin.

### Abenduak 27, ostirala

■ Txuri Urdinera DBH1ekoentzat.

### Abenduak 30, astelehena

■ Pizza tailerra DBH4koentzat.

### Urtarrilak 2, osteguna

■ Txuri Urdinera DBH2koekin.


#### Informazio gehiago:

Gaztelekuan / gaztelekua@usurbil.eus  
943 371050

Antolatzailea: Gaztelekua.

**Marije**  
Arropa denda

Etxebeste 3 - 943361106

 [facebook.com/marijearropadenda](https://facebook.com/marijearropadenda)

# Rafa

iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfindatzazko gremioak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • @ 943 36 80 04

Ondo pasa Gabonetan!

# ZENDOIAENEA

taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

# KAM DEN

hizkuntzak

English courses

**Merry Christmas to all!!**  
See you in January

Ondo pasa Gabonak!!

**Ordutegia:**  
16:00-20:00

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402  
[www.kamdenhizkuntzak.com](http://www.kamdenhizkuntzak.com)

## HERRI KABALGATA

**E**gunerokora itzuli aurretik etxeko txikienek azken gurariak bideratzeko aukera izango dute, urtarrilaren 5ean Usurbila helduko diren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeei. Ohi bezala, postaria aurreratuko zaie; haurren gutun eta eskaerak biltzen ariko da eguerdi partean. 11:30etik aurrera, frontoian.

Erregeak aldiz, Urdaiagan ikusiko dituzte lehen aldiz arratsaldean, 17:00etan eta handik behera abiatuko dira Usurbilerantz. San Estebango plaza, sendategia, Santuenea, Bizkarre, Errekatziki, Olarrondo (bertan atsedendia), Puntapax, Kale Nagusia kontrako norantzan eta Zu-

biaurrenea kalea zeharkatuko dituzte. Bidera hurbiltzen direnek gozoki zaparrada izango dute. Eta helmugan, frontoian, harrera ofiziala eta erregeekin egoteko aukera 19:30ak aldera. Guztia Ziortza Gazte Elkarteak antolatuta.

### **Haurrentzako zinea, astebete beranduago**

Erregeei harrera ohi bezala urtarrilaren 5ean egingo zaie; datorren hilabeteko lehen igandearekin egokituko da. Izatez, egun horretan bertan egokituko litzateke haurrei zuzenduta negu parterako Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkarteak antolatua duten zine proiektzioa. Eguna zein den ikusita, astebete, urtarrilaren 12ra atzeratu dute proiektzioa.



Urtarrilaren 5ean, eguerdiko 11:30etik aurrera, haurren gutunak eta eskaerak batuko dituzte frontoian.

Gabonetan  
kezkak etxean utzi,  
guk eramango  
zaitugu.



Tel.: +34 943 36 32 90  
[www.autocares-aizpurua.es](http://www.autocares-aizpurua.es)

AUTOBUSAK  
*Aizpurua*

**Zorionak eta Urte Berri on!**



Zorionak eta  
urte berri on!



**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba



Rtalu industrialdea 26 ☎ 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com www.alkartasunausurbil.eus



Zorionak eta  
Urte Berri on!

**antenas**  
**Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

# Uraitz, s.l.



**Igeltseritza**  
**Orokorra**

ONDO PASA GABONETAN!

Telefonoa  
**693 05 93 92**

Borda Berri 2, 3.A USURBIL

uraitz@uraitz.com

## EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA OPARI

**M**ari Domingi eta Olentzerori gurariak bideratzeko oparien zerrenda prestatzen hasteko garaia da. Ez ahaztu bereziki haur eta gaztetxoentzako eskariren bat egin nahi duenak, sorpresen saski horretan euskarari tartea egitea. Urte amaiera honetan ere, euskara oparitu diezaiekezue 0-16 urte arteko haur eta gazteei, eskaintza zabala baitugu eskura. Hautaketa lana egiten lagunduko digu, Hego Euskal Herriko 115 udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuek (tartean Usurbilgoak) elkarlanean plazaratu duten Euskarazko Produktuen Katalogoak. Udalak ikaste-txeetan banatuko du asteotan.

### Sarean ere eskuragarri

Paperezko edizioaz gain, 10.000 produk-



Paperezko edizioaz gain, 10.000 produktu baino gehiagoren erreferentziak aurki ditzakezue [katalogoa.eus](http://katalogoa.eus) atarian.

tu baino gehiagoren erreferentziak aurki ditzakezue [katalogoa.eus](http://katalogoa.eus) atarian. Haietako bat hautatu eta eskuratu nahi izanez

gero, web orrialdetik produktu horren denda birtualera sartzeko bidea ere bada, “non eskuratu” botoiaren bidez.

**MIKEL  
ARRANDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

Zorionak eta  
urte berri on!

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

**PSU**  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)  
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



*Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra itxita ( biak barne)  
Urtarrilaren 3an irekiko dugu, ondo hasi 2020 urtea!  
eta zatoz gure aurtengo sagardoa dastatzera!!*

# txinparta

SAGARDOTEGIA

**Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak**

**Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00**

# XUA GURASOEKIN ETXERATZEKO DINAMIKARI LOTUTA, DEIALDI BEREZIAK ASTEOTARAKO

Egun bereziotan ere herrian falta direnak gogoan; Xua gurasoekin etxera ekartzeko aldarria bizi asko izango da kalean asteotan. Ez ahaztu, urtarrilaren 19an beteko ditu Xuak 3 urte eta aske behar zuten arren, Valentziako Picassenten, gugandik 600 kilometrora preso dituzten Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga gurasoengandik bereziko dute hilabete barru. “Laster Xua gure artean izango da, amonarekin biziko baita. Euskal presoen ehunka senide eta lagunek bezala, motxila jantzi beharko du eta 1.000 kilometro egin gurasoak ikusteko. Ez dugu zalantzarik motxila astun hori denon artean eramaten lagunduko diegula baina, iaz eta aurreko urteetan bezala, gure helburu behinena berbera izaten segitzen du: halako motxilarik ez izatea!”, gogorazi dute herri plataformatik egunotan etxeetan banatuko duten aldizkari berezian.

Halakorik gerta ez dadin, eta Xuarekin batera gurasoak ere etxeratzearen alde lanean dihardu izen bereko herri plataformak. Hainbat deialdi iragarri dituzte asteotarako Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearekin batera.

## Kantu itzulia

Urtero moduan euskal presoen eta iheslarien eskubideen aldeko kantu-jira iragarri da abenduaren 24rako. Aurtengoan ordea, “Xua Gurasoekin Etxera” aldarria kokatuko dute hitzorduaren erdigunean. Lehenbizi Mari Domingirekin kantuan itzulia emango diote herriari 17:00etan frontoitik abiatuta. 19:00etan harrera egingo diote Olentzerori Dema plazan. Baserritarrez jantzita agertzea eskatzen dute deitzaileek. Urtea topa eginez agurtzeko deia egin dute Usurbilen Nahi Ditugu Bilguneak eta Xua Gurasoekin Etxera



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ere elkartasuna adierazi diote Xuari.

herri ekimenak; hilaren 31n 20:00etan Dema plazan.

## Abenduaren 28an, manifestazioa Donostian

“Atera Bidera Orain Presoak” aldarripean, urtarrilaren 11rako Sarek Baionan eta Bilbon (17:00etan La Casillatik) deituak dituen urteroko Euskal Herri mailako mobilizazioen aurretik beste lau deitu ditu Sarek urte amaierarako Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Donostiakoa abenduaren 28an 12:00etan Bulebarretik. Besteak beste, Xuak eta bere guraso Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak gugandik 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko espetxean bizi duten egoera salatuko da. Hiruren etxeratzea eskatuko da.

“Nabarmentzekoa ere Xuaren kasua. Xua bere ama Olatzekin dago espetxean, baina urtarrilaren 19an hiru urte beteko ditu eta, ondorioz, ama eta aitagandik bereizita izango da”. Hala gertatuko balitz, guraso bat edo biak etxetik urrun preso dituzten ehunetik gora motxiladun haurren kolektiboko kidean bilakatuko da

Xua. “Xua moduan, beste 103 (guztira 104) motxiladun haur daude ama, aita edo biak espetxean dituztela igaro behar dituztela beste behin ere gabonak”.

Mobilizazio hauetan parte hartzera deitu dute. Espainiako Gobernua osatze lanetan ari diren honetan, “behar beharrezkoa da euskal jendartearen gehien-goak babesten dituen aldarriak kalean, era aktiboan erakustea. Elkarbizitzarako eta bakerako hain beharrezko ditugun aldaketa hauek aintzat hartu eta gauza daitezten. Presoak, dagozkien urratsak emanaz, etxera bidea egin dezaten, atera gaitzen bidera!”.

## Manifestua

Xua Gurasoekin Etxera herri ekimeneko kideak kalean aurkituko dituzue asteotan, kaleratua duten materiala (arropa, ixa pegatinak...) saltzen eta plazaratua duten manifesturako sinadura emateko aukera izango da. Bestela, sarean duzue atxikimendua adierazteko aukera change.org atarian sartu eta bilatzailean Xua Gurasoekin Etxera hitzak idatzita.

# Aguirrezabal Estankoa

*Zorionak  
eta urte berri on!*

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

GOLDWELL  
ELUMEN

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*



Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

# URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK  
OBRAK

BERRITZE LANAK

[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)

IT-ak egiten  
dira

*Onda pasa  
sabanetan!*

# GAZTE MUGIMENDUAREN DEIALDIAK

**E**rnai Usurbilek abenduaren 26 eta 27rako 5. Gazte Topaketak iragarri ditu. Mikromatxismoak, jai ereduak, errauskailua, herriko presoen egoera edota gazte mugimendua izango dituzte hizpideen artean.

Hausnarketa edota solasaldiokin batera elkartasun afaria ere antolatu dute Aitzaga Elkartearen eta presoekin gutunak idazteko txokoa ere egokituko dute. “Gazte(r)ria eraiki!” aldarripean, hemen Ernai Usurbilek plazaratu duen egitarau zehatza:

## **Abenduak 26, osteguna**

■ 11:00 Betaurreko Moreak: Mikromatxismoak.

■ 17:00 Jai ereduak: “Jaia bai, borroka ere bai! Ereindako haziak loratzen”.

## **Abenduak 27, ostirala**

■ 11:00 Gazteok errauskailuaren aurrean zer?

■ 17:00 Ernai: nondik gatoz, nora goaz.

■ 20:00 Xua, Patxi eta Olatzekin etxera!



Gazte topaketa hauetan gai ezberdinen inguruan hausnartuko dute. Argazkia: Ernai.

Gazte solasaldia.

■ Ondoren, elkartasun afaria Aitzagan.

Oharrak:

-Saio guztiak Potxoenean izango dira eta elkartasun afaria Aitzaga Elkartearen.

-Presoekin gutunak idazteko txokoa egongo da:

[Olatz Lasagabaster Anza](#)

Centro Penitenciario Valencia III (Madres)  
Apartado 1002, 46220 Picassent

[Patxi Uranga Salbide](#)

Centro Penitenciario Valencia III  
Apartado 1002, 46220 Picassent

# TXOSNA BATZORDEARENTZAKO IZENA HAUTATZEKO DEIA

**A**zken urteotako herriko jaientan indartzen joan da bilgune gisa, bai festetarako egiten zuen eskaintzari dagokionean, eta haien ekimenen parte hartzea ere hazten joan da. Baina ez du izen propiorik; Usurbilgo Txosna Batzor-

dea hitzok ezagutzen dugu, txosna batzorde gisa. Bilguneko kideek marka izena sortu nahi diote. Hautaketa lanetarako parte hartze prozesua iragarri dute; herriari laguntza eskatu nahi diote. Abenduaren 20tik urtarrilaren 10era arte, Aitzagan, Txiribogan, Txirristran

eta Zendoian izena hautatzeko kaxak jarriko dituzte. Edonork proposa dezake izen bat, herritik sortuko da batzordearen izena. Izen berriaren aurkezpena aldiz, urtarrilaren 31rako iragarri du Txosna Batzordeak.

# Elexpe

*Ukapaindegia*



*Zorionak!*

Betileen tintaketa  
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta  
etzandako  
Solariuma

Muna Lurra 12 • ☎ 943 370 462



**ITZIRA**  
BARRIKUNTZAH

*Zorionak eta urte berri on!*



943 530 337  
607 119 313

- gremioen koordinaketa • berritze lanak
- sukaldeak • komunak • mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

# txirriStra

TABERNA




- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

**Zorionak eta urte berri on!**

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

# TXIRIBOGA

TABERNA



*Ondo pasa Gabonetan!*

**IRAZU KALEA 6, USURBIL**

# URTE HASIERAN, GABONETAKO PARKEA

Oiardo Kiroldegia jolastoki erraldoian bilakatuko dute urtarrilaren 2tik 4ra, hiru egunez. Eta hiru eremutan banatuko dute; 2-6 eta 6-12 urte artekoentzako txoko bana izango du jolastokiak eta hirugarren bat guztientzako partekatua.

## Gabonetako Parkea

- Egunak: urtarrilak 2, 3 eta 4.
- Orduetgia: 11:00-13:00/16:30-19:30.
- Tokia: Oiardo Kiroldegia.
- Guneak:

-2-6 urte artekoentzat: margolarien gunea, ludoteka psikomotrizitateko aparailuekin, puzgarriak.

-6-12 urte artekoentzako gunea: puzgarriak, ohe elastikoak.



2-6 eta 6-12 urte artekoentzako txoko bana izango da; eta hirugarren bat, guztientzako partekatua.

-Guztientzako gunea: saskia, futbolina, haize mahaia, egurrezko 10 joko.

■ Tailerrak adin guztientzat.

■ Urtarrilaren 4an, Diskofesta parkearen itxieran.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.




**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01**  
**pikabea@pikabeaaseguruak.com**



Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS





“Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizpait giñaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe:  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.”

**Xabier Lete**

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON**



[eaj-prv.eus](http://eaj-prv.eus)

## Abenduak 18-urtarrilak 7

■ "Usurbilgo sortzaileek 2019an kalera-turiko lanak ikusgai Sutegiko erakustare-toan.

Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Sutegi udal liburutegia.

## Abenduak 20, ostirala

■ 19:00 Jon Etxabe Telleria sexologo-psi-kologoaren hitzaldia Santuenea Auzo Elkarteak: "Berdintasuna eta generoa".

■ Ondoren, San Tomaseko ospakizuna: txistor jana.

Antolatzailea: Santuenea Elkarteak.

### Ikastetxeen kantu saioak

#### Aginagako Eskola

■ 10:00ak aldera Aginagako Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen kantu-jira Aginagan barrena.

■ Ondoren, guraso taldeak prestaturiko hamaiketako dastatzea.

Antolatzailea: Aginagako Eskola.

#### Zubietako Eskola

■ 12:00ak aldera, gabon kantak senideekin Errebote plazan.

■ Ondoren, Guraso Elkarteak hamaiketako eskainiko du Zubietako plazan. Txistorra, edaria, musikaz lagunduta.

#### Udarregi Ikastola

■ 09:30-10:45 LH-DBH-ko ikasleen kantu-jira:

-LH-koek Kalezarko itzulia egingo dute.

-DBH-koak Kaxkoan barrena ibiliko dira.

■ 12:10 HH-koen kantu saioa ikastola atarian.

■ 16:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Haur Eskolan.

■ 17:00ak aldera, Haur Eskolatik Kalezarreko plazara abituko dira kantuan Haur Eskolako eta HHko ikasle, guraso eta irakasleak. Eta handik Mikel Laboa plazara. Antolatzailea: Udarregi.

## Abenduak 21, larunbata

■ "Got Talent" DBH1-ekoekin Gaztelekuan. Antolatzailea: Gaztelekua.

## Abenduak 23, astelehena

■ 18:00 Olentzerori harrera Aginagako

Sekaña inguruan.

■ Ondoren, trikitilariak lagundurik kalejira Eliza Zaharrera. Bertan, gutun bilketa eta gaztain jana.

Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarteak.

#### Olentzero Usurbilen

■ 19:30 Olentzero Usurbilen, Hurbilago herrialdean. Antolatzailea: Hurbilago Elkarteak.

## Abenduak 24, asteartea

#### Aginagan:

■ 09:00 Kantu-jira etxez etxe elizatik abiatuta. 15:00ak alderako Aginaga Kaxkoan. Antolatzailea: Katekesi taldea.

#### Santuenean:

■ 18:00 Olentzeroren irteera plaza ondoko lokaletik. Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkarteak.

#### Zubietan:

■ 16:00 Kantu eskea Artzabaleta baserri-tik. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txiki Guraso Elkarteak.

#### Usurbilen:

■ 17:00 Mari Domingirekin kantuz herri itzulia frontoetik, preso eta iheslarien eskubideen alde eta Xua Gurasoekin Etxera aldarrikatzeko. Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

■ 19:00 Olentzerori ongi etorria Dema plazan. Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

#### Olentzerori ongi etorri jaia:

■ 17:00 Olentzerori idatzitako gutunak jaso Dema Plazan.

■ 18:00 Olentzeroren etorrera Kalezarretik abiatuta.

■ 19:00 Amaierako jaia, Dema Plazan.

Antolatzaileak: Usurbilgo herri eragileak.

## Abenduak 26, osteguna

#### San Esteban Txiki Urdaiagan:

■ Goizean, meza ospatuko da.

■ Ondoren, hamaiketakoa.

Antolatzailea: San Esteban Jai Batzordeak.

#### Elurretara DBH3koekin.

Antolatzailea: Gaztelekua.

#### Usurbilgo 5. Gazte Topaketak Potxoenean

■ 11:00 Betaurreko Moreak: Mikromatxismoak.

■ 17:00 Jai ereduak: "Jaia bai, borroka ere bai! Ereindako haziak lorutzen".

Antolatzailea: Usurbilgo Ernai.

## Abenduak 27, ostirala

■ Gaztelekutik Txuri Urdinera. DBH1-ekoekin. Antolatzailea: Gaztelekua.

#### Usurbilgo 5. Gazte Topaketak Potxoenean

■ 11:00 Gazteok errauskailuaren aurrean zer?

■ 17:00 Ernai: nondik gatoz, nora goaz.

■ 20:00 Xua, Patxi eta Olatzekin etxera! Gazte solasaldia.

■ Ondoren, elkartasun afaria Altzagan.

Antolatzailea: Usurbilgo Ernai.

## Abenduak 27/28

■ 11:30-14:00/16:30-21:00 Hurbilagoren Gabonetako Parke Erraldoia Kaxkoko plazetan.

Antolatzailea: Hurbilago, Usurbilgo Merkataria eta Ostalarien Elkarteak.

Babesleak: Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritza.

## Abenduak 28, larunbata

■ 9:00-20:00 Mirotzen omeneko infantilen arteko 12. eskubaloi txapelketa Oiar-do Kiroldegian.

■ 20:00 Sari banaketa. Antolatzailea: Usurbil K.E.

#### Manifestazioa Donostian

■ 12:00 Motxiladun haurren egoera salatu eta Xua gurasoekin etxera ekartzea galdegiteko manifestazioa Donostiako Bulebarretik.

Deitzaileak: Sare eta Xua Gurasoekin Etxera.

## Abenduak 29-30

■ Pintxojira Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga, eta Txirristra tabernetan.

Antolatzailea: Hurbilago Elkarteak.

### Abenduak 29, igandea

■ 10:00 Gabonetako futbol txapelketa Haranen. Antolatzailea: Usurbil F.T.

### Abenduak 30, astelehena

■ Pizza tailerra Gaztelekuan DBH 4-koentzat. Antolatzailea: Gaztelekua.  
■ 17:00 "Niararen bidaia" antzezlanaren Aginagako ludotekan. Sarrera doan. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarte.  
■ 19:00 "Egia bide askatasuna amets" ekitaldia Usurbilgo frontoian.

### Abenduak 31, asteartea

■ 17:00 10. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa frontoitik.  
■ Ondoren, parte hartzaileen arteko zozketak eta Hurbilagoren Gabonetako Zozketa. Antolatzailea: Hurbilago.  
■ 20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko topa Dema plazan.

Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

### Urtarrilak 1, asteazkena

■ 01:00 Iñaki DJ frontoian.  
Antolatzailea : Usurbilgo Udala.  
■ 10:00ak aldera Urte Berriari harrera egin ohi diote Andatza gainean.

### Urtarrilak 2-4

■ 11:00-13:00 / 16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea Oiarde Kiroldegian.  
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

### Urtarrilak 2, osteguna

■ Txuri Urdinera DBH2koekin.  
Antolatzailea: Gaztelekua.

### Urtarrilak 5, igandea

**Erregeak Usurbilen:**  
■ 11:30 Erregeen postaria frontoian gutu-

nak biltzen ariko da.

■ 17:00 Errege kabalgata San Estebango plazatik.  
■ 19:30 Erregeen etorrera eta azken ekitaldia frontoian.  
■ Ondoren, protagonistekin egon eta hitz egiteko aukera izango da.  
Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkarte.

### Urtarrilak 11, larunbata

■ 15:00 "Orain presoak" manifestazioa Baionan.  
Deitzailea: Bake Artisauak.  
■ 17:00 "Orain presoak" manifestazio nazionala Bilboko La Casillatik. Adi autobus zerbitzuei. Deitzailea: Sare.

### Urtarrilak 12, igandea

■ 17:00 Haurrentzako zinea euskaraz Suetin.  
Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza G.E.

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Ondo pasa  
GABONETAN!

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Gure hitzak  
esan, berriz esan  
ez daitezela ahaztu,  
ez daitezela gal

*Urte berri on!*



Usurbilgo Udala